

Prentsa-oharra

Gehieneko efizientzia, aktiboen mantentze-lanetan

- ▶ *IK4-TEKNIKERek, Sisteplant ingeniari-tza-enpresarekin batera, mantentze-lanak optimizatzeko eta planifikatzeko tresnak garatzen ditu*
- ▶ *Gastuak murrizte aldera, mantentze-lanetarako hainbat estrategia alderatzen ditu irtenbideetako batek, egokiena eta errentagarriena hautatu ahal izateko*

(Eibar, 2019ko maiatzak 23).- Industria-arloko ekoizpen, eskuragarritasun eta segurtasun-premia berriak direla-eta, produktuak eta zerbitzuak hobetzeko soluzio berriak bilatzen dituzte enpresek; bereziki, mantentze-lanen eta eragiketen eremuan.

Balioesten denez, industria-arloko enpresek guztizko salmenten %4 eta 8 artean gastatzen dute mantentze-lanak egiten. Kopuru handia da hori, eta, horrenbestez, teknika berri efizienteagoak esploratzen hasi da sektorea.

Efizientiaren eta lehiakortasunaren bilaketa horretan, enpresek nahiago dute mantentze-lan prebentiboen eta prediktiboen alde egin, ohiko jokaera zuzentzaileen alde egin baino, emaitzak maximizatzeko eta gastuak murrizte aldera.

Testuinguru horretan, mantentze-lanetarako eta eragiketarako estrategia onenaren bila dabilzala **bezeroek dauzkaten premiei eta xedeei egokitzen zaizkien hainbat tresna malgu** garatu ditu IK4-TEKNIKERek Sisteplant ingeniari-tza-enpresarekin batera (hainbat sektoretarako ekoizpen, logistika eta antolaketa-prozesuak optimizatzea da Sisteplant enpresaren jarduera nagusia), errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegitik abiatuta beti.

Zehazki, software-tresna batek **mantentze-lanetarako hainbat estrategia posible alderatzen ditu (plangintza eta optimizazioa, aktiboen ustiapenaren maila estrategikoan), egokiena hautatu eta, horrela, kostuak optimizatzeko.**

Bestalde, mantentze-lanak eta ordezeko piezen kudeaketa optimizatzeko tresnak eta algoritmoak garatu dituzte. Aktiboen arrisku-faktoreak kalkulatzeko, ordezeko piezak optimizatzen, material-stockak kalkulatzeko eta, azkenik, mantentze-lanei buruzko planen atazak eta gamak irizpide anitzekin optimizatzen laguntzen duten algoritmoak dira.

Hala, mantentze-lanetako estrategiak alderatzeko modulu berri bat garatu du IK4-TEKNIKERek, Sistepant enpresaren mantentze-lanak kudeatzeko soluzioarekin integratua, bai mantentze-lanak maila estrategikoan planifikatzeko, bai mantentze-lanak nahiz ordezeko piezen kudeaketa optimizatuko dituzten tresnak garatzeko.

Asset Management Solutions

IK4-TEKNIKERen **Asset Management Solutions** izeneko soluzioan daude oinarrituta tresna horiek; zehazki, **fidagarritasun, estrategia eta plangintzaren** atalean, enpresa bakoitzaren premiak pertsonalizatzea ahalbidetzen baitu, hobekuntza-beharrak eta xede espezifikoak zehazteari begira.



IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////